

AITA LUKI, KARMELDAR MATIAGARRIA

1997ko otsailaren 18ko goiza atzean geratu da. Goiz horretan joan jakun Aita Luki, karmeldar apal eta maitagarria.

Albistearen barri-barritan emotea zan gure gogoa, baina hau dala bestea dala, oraintxe arte atzeratu gara ezinbestean.

Dana dala, goiz edo berandu, *Karmel* aldizkarian gorderik izan dogu lekutxo bat harentzat. Izan be, aldizkari honetako idazle izan genduan lehengo garaietan. Gatz eta piperrez ondo hornidurik idatzi ohi zituan kontakizun umoretsuen egile batez be.

Dima eta Larrea

Izen bi horreek gogo-gogoan izango zituan. Bata, mundura sortu zan herria eta umetako bizilekua; eta bestea, erlijioso-bizitzara sortu eta bere amesik gehienak loratzen eta garatzen ikusi zituan txoko maitea.

Dimako Arostegieta auzoan jaio zan, Etxetxu baserrian, 1908ko maiatzaren 8an. Domingo Agirre Ozerin eritxon. Gurutzat Aita Luki. Sendotzako sakramentua hartzean bere taldean izan eban geroago entzutetsu izatera helduko zan mutiko bat. Elizak "dohatsu" izendatuko eban Domingo Iturrate. Aita Lukiren senitartean hainbat moja eta fraide izan dira.



A. Luki, gerratean Gorbean mezea emoten.

Bere lehenengo ikasketak Diman egin zituan eta 1918an, hamar urterekin, Larreako ikastetxean sartu zan. Larreako jaunen jauregia lehen-txoago erosita eukan karmeldarren komunidadeak eta etxe horren barrualdeak egokiturik, ikastetxe bihurtu zan 1916an, baina ez oraindi-

no barnetegi 1919 arte. Urte horretan emon jakon hasierea barnetegiari 19 ikaslerekin. Horreen artean zan gure Domingo Agirre be (geroago Aita Luki izango zana). Santi Onaindiak be hor izan behar eban, *Oroi-txinpartak* izeneko bere autobiografi liburuan halantxe esaten deusku-eta: "Ikastetxe honen atarian dei egin genduan aitak eta biok lotazillaren 4an, eguerdi inguruan. Bertatik jatsi zan atezaiña, ikasle gazte bat, gaur be ementxe neugaz bizi dan Aita Luki, Dima-ko semea".

Giza Zientziak amaitu ondoren, 1923an nobizio sartzan da. Luzio Teresatxo Dohatsuarena hartzen dau erlijio-izentzat. Urte horretan bertan, apirilean, Elizak *dobatsu* izendatu eban Lisieux-ko Teresatxo karmeldar gaztea eta gure nobizioak haren izena hautatzen dau beretzat. Denbora aurrera eta urtebetegarrenean, 1924ko uztailaren 10ean, heldu jaken gazteoi profesia-eguna. Profesia egin barriak Markinara joan ohi ziran filosofiako ikasketei ekin aurretik. Urtebete honen zera nobiziaduan hasitakoa osotzea eta hobeto barneratzea zan alde batetik, eta giza zientzietan gehiago sakontzea bestetik. Filosofiako hiru urteak, 1925etik 1928ra bitartekoak, Gasteizen egin zituan. Teologiako ikasketak, barriz, Begoñan. 1931ko ekainaren 29an egin zan abade. Zornotzako ikastetxera bialdu eban, Aita Roman hango zuzendariari gatzetxoen heziketan laguntzeko. Era berean teologiako laugarren urtea amaitu eban. Horren ondoren ikastetxeko

irakasle eta zuzendariorde geratu zan 1936 arte, 1936-1937ko ikasturterako Alesbesko ikastetxeko irakasle-agiria emon eutsen, baina alperrik, gerrea sortu zan-eta. Haren kintakoak deituak izan ziran eta *Euzko Gudarostearen* kapilautzan sartu zan, Malato batailoian. Bere lana Gorbea aldean egin eban batez be.


Euskal Herrian gerratea amaitu ostean, gorriak ikusi behar izan zituan gudarien beste kapilau batzuekin batera. Zortzi urteko kartzela-zigorra emon eutsan Bilboko Gerra-kontseilu iraunkorrek 1937ko uztailaren 30ean, gudarien kapilau eta *Karmengo Argia* euskal aldizkariko idazle izatea beste errurik egozten ez jakola... Kartzelarik kartzela ibili zan. Begoñako Karmelon, Langraiz Okan, Dueñasen eta Karmonan izan zan hiru urte luzetan.

1940ko udan emon eutsen askatasuna, eta Kantabriako Soto Iruz-era bialdu eben nagusiak, hiru hilabete, uztailetik urrirarte, han igarorik. Egotaldi horren ondoren, Alesbesko ikastetxean irakasle izateko agiria jaso eban eta hortxe jardun eban 1940ko urritik 1943ko abendurarte. Urte horren hasieran Larreara bihurtu ahal izan eban. Eta 1945eko udabarrian Larrean bertan egin zan Kapitulu Probintzian Markinako nagusi izendatu eben Aita Luki. Kapitulu horretan kartzelarik kartzela erabilitako fraideei bidebakokeriaz kenduriko izen ona bihurtzeko guria-edo nabari zan.

Markinako hiru urteak amaiturik, 1948an Larreako nagusi izendatu eben. Geroago, 1954an, Zornotzako ikastetxeko nagusi. Azkenik, 1957an Larreara bihurtu zan barriro, eta hortxe iraun eban, ha-



A. Luki Markinako Karmengo ortuan (1945-1948).




A. Luki Bizkaiko mutil taide batekin, Lareran

rezkero kargu barik, komuni-
dade-bizitza
eginez, aposto-
lutzalanean eta
batez be Biz-
kaiko mutikoen
artean Jainkoa-
ren deiaren
mezulari iza-
nez. Lan hone-
tan 40 urte lu-
zez iraun eban.

Bizkaiko herrietan zehar

Ezaguna zan Bizkaiko herrietan. Maite eben abadeak, adin guztietako jendeak, aitaita-amamak eta batez be eskola-umeak. Zornozako bideetan, oinez gehienetan, esku-poltsa bat harturik, aurrez aurre aurkitzen zituanei berba gozo bat zuzenduz, debozinozko gauzaren bat eskeintzen (errosario, eskapulario edo estanpatxo bat) sarri ikusiko zenduan. Karmeldar abituaz beti eta, azken urteetan izan ezik, sandalia eta guzti; han-horhemen asko ibilitako behatz maskurtsuak agirian. Fraide klasikoaren taxua eukan Aita Lukik: gerri-buelta zabala, ule urdin latza, ibilkune baldar antzekoa, gaztetarik zahar-itxura apur bat emoten eutsana. Gerratean gudarien kapilau izan zaneko ibilerak, Frankoren kartzeletako urte latzak, Larreako baraualdi luzeak ondo eroan zituala dirudi. Ez neuke esango gatx egin izan eutsenik behintzat, ondo gobernatuaren antza eban-eta. Bai, osasun onekoa zan, mardoa. Eskolarik eskola eta herririk herri ibili beharrez, bere zorioneko Lambretaz ibilteko moldakatz, aldi haretan hartu zituan mailatuneak ia betiko markatu eben, baina halako baten baino gehiagotan bizirik urten ebanean pozik...! Istripu hareek ez ziran olgetakoak izan, kontizu. Bestela nok jakin zenbat urte harrapatuko zituan!



1955ean, Karmelo ikastetxeko ikasleekin.

Bere ikasketak amaitu zituanetik, Jaunaren deia mutikoen bihotzetan ereitea zan haren gogo bizia. Atsedean barik erein eta erein egin behar dala esan ohi eban, beti geratzen dala zeozer-eta. Horretan ahalegintzen zan. Gure ikastetxeetan izan zituan lehenengo hartu-emonak gartzetxoekin. Baina, irakasle izan nahiz ez izan, mutikoengana hurreratuko zan ahal eban guztian. Batzuetan, han-hor-hemen egin behar zituan sermoiak emoten eutsen bide horretarako. Beste batzuetan, oster, beren-beregi joaten zan, baina bestela baitakoan, horretarako lehia biziegirik erakutsi barik, bide batezko zerean lez, gonbidapen gozoa eginez. Eskoletan, katekesi-tokian, elizpean, sakristian... edonon bilatzen eban modua mutikoe-kin egoteko. Ustekabean agertzen zan. Baina taxu narras antzekoa izan arren, ez zituan uxatzen umeak, bestera baino: pozik inguratzen jakozan, kanpoko itxuraz bestalde, barruko urregorria harengan somaturik-edo. Bere irribarre kirrikatsuaz, errosarioak eginez, estanpatxo bat eskeiniz... baekian

umeak erakarten. Aita-liluraren zeozertxo baeban gaztetxo-entzat.


Nik neuk ume-umetan ezagutu neban, Aita Martinek eta biak Meñakan misinoiak emoten ziharduela. "Zaharra eta gaztea" esaten eben. Izan be, Aita Martinek Aita Lukik baino 20-25 urte gehiago izango zituan. Egia esan, zaharra Aita Luki zalakoan nengoan ni, ule urdin-urdina eukan-eta...

Ondorengo urteetan gure "Lionene"ko eskola zaharrera etorriak ziran Ordena ezbardinetako fraideak; horreen artean, jakina, Aita Luki be bai. Amua bota nahian-edo... Lehenengoetan, amuari zirku eginik edo harritxo baten azpian gorderik, zelan edo halan lortu genduan geure lekuan aske jarraitzea. Baina



A. Luki eta A. Jenaro Luis Baralazarrarekin, honen mezarri egunean (1966-V-29).


gure Aita Lukiren asmo finkoa ereitea zan. Eta hazia ereinda egoan. Umeen bihotzean, jolas-amesetan, Jaunak bere deia entzunazoten eban. Ni, lehenengotan, ezezkoan nengoan. Behin, Hirukoiztarrak (Trinitarioak) etorri ei ziran gurera. Ni ez nengoan etxean eta itzuli eta bisita haren bari emon eustenean, haizea hartzera joan eitezala esan neban, haina berba itsusia-goak erabiliz... Halakorik ez dala esan behar eta agirika egin eusten eta burua makurtu neban. Geroago, ostera, eskolan izena emon ezaren damu izan nintzan eta hurrengoan halan egingo nebala agindu neutsan neure buruari, baita lagun ba-



A. Luki jai baten bere bertsoak kantatzen (1981-IX-12).

tzuei honetaz zeozer esan be. Abadeak soloak bedeinkatzen zituanez noizbehinka eta meza-laguntzaileak (akolitoak), bitartean, limosna eskatzen ibiltzen ziran aterik ate. "Gari-bedeinkatzen" esaten zan. Halako baten nenbilela hartu ninduan Aita Lukik. Lagun bi etorri jatazan barri emotera: euren izena eta nirea be emon ebela Zornotzako ikastetxera joateko... Hau be bada, ba! Neu aurrez aurre eta zuzenean ez nintzan, beharbada, ausartuko eta beste batzuk erreztu eusten bidea. Haretara jarri nintzan, ba, pozik eta era berean arduraz!! Aita Lukik gogo-gogoan izan zituan zertzelada guztiok. "Gari-bedeinkatzean" aurkitutako bokazinoa nintzan ni eta sarri-sarri gogorazoten eustan.

Aldi haretan sermoiak egiten-edo egunetan izan zan Meñakan. Ni orduan asteko nintzan mezea erasoten eta goizean goiz joan nintzanean, sakristian aurkitu neban errosarioak egiten. Ohi ebanez, irribarre kirrikatsuz eta bestetan baino be txeratsuago hartu ninduan. Ni oraintxe be neure burua



Lourdesen (1982-Viii-4).

ikusten nagoala dirudi eta apur bat kikildurik, barruan nerabilen bildurra agertu neutsan: zaharragoak edo ikastetxean lehendik egozanak esanda entzun izan nebala han liburu handiak eta asko ikasi behar zirala. Ni ez nintzala gai izango

eta ea zer egingo neban... Ez dakit zer erantzun eustan. Apurka-apurka dana egiten dala. Holako berba pozgarriak izango ziran. Asaskatu eta pozik geratu nintzan, behintzat. Hau be gogoan eukan. Orain dala hamabost bat urte, Eusko Jaurlaritzak antolatzen dauan *Lizardi Sarian*, hau da, olerkisariketan irabazle izan nintzan. Sari garrantzitsua zan hau, Euskal Herrian emoten zan saririk onena eta dirutan be opa-roena, 600.000 pezeta. Aita Lukik bertso txo batzuk bialdu eustazan zorionak emonez. Bertso horreetan sakristiako pasadizo hori ekarren: "nik zer egingo dot, ba, hain liburu lodien aurrean...?"

Gure belaunaldiko karmeldarrok, batez be bizkaitarrok, asko zor deutsagu. Bera izan zan Jainkoaren izenean dei egin euskuna eta gero be, nobiziaduan, askok harengana jo ohi genduan hango laztasun artean kontzientzia baretzera eta barrua apur bat asaskatzera.

Aita Luki Bizkaiko parrokia, eskola eta bideetan zehar Jesusen benetako apostolu eta, gaztetxoan artean batez be, aita on baten irudi zan. Orain falta da gure artean hain berezkoa zan

eta gure inguru eta lurraldearekin hain bat eginik egoan irudi apal eta maitagarri hori.


Zornotzan ataraten dabena *ILERO* izeneko aldizkarian datorren zatitxo bat aldatuko dot hona, neure erara euskeraturik:

[Haren bizitza Jainkoa, bere Ordena eta Euskal Herriagana-ko maitasun ukatuezinakoa izan da. Bizitza eredugarri hori jomuga garbi batez markaturik izan da beti: lagun-hurkoaganako maitasunaz. Aita Lukik, ontasun-iturri ibiltaria zanak, maitasuna erein dau bide, errepede eta bidezidorretan zehar.

Abitu latza, Jainkoaren ezpatari baketsuaren sandaliak, eduki ezezaguneko esku-poltsa narruzkoa, bularra apur bat jausia, bekoki-ule bihurria... hona hemen Zornotzak bere-berea dauan gizon baten "beste irudiaren" osagaiak].

pasadizoak

Gorabehera xelebreak kontatzen zituen beraren gainean herrietako hainbat pertsona eta abadek. Batez be jan kontuan. Jatun handia zan, horretan ezetzik esaten ez ekiana. Guztia eihotzen eban haren erroteak. Behin-edo atera eutsen okela zatia errez mende hartu ebala ikusirik, gehiago eskeini eutsen, kontizu; bai pozik onartu be esanez: *ekarri, ekarri, motorrak eroango*



A. Luki Larrea 1987an.

go dau-eta...! (aldi haretan motorra, lambretta bat, erabilten eban). Beste batzuetan, holan erantzun ohi eban: *bai, bai! ekarri, hori baino eginkizun gaixagorik bada-eta...!* Dana dala, eza be jazo izan jakon behin baino gehiagotan: emoile eskuza-balik egokitu ez aurrean eta isil-isilik barau egin behar...

Lambretta bat erosi eban, herririk herri egin beharreko joan-etorriak errezteko. Erreztu bai osterak, baina arrisku handitan sartu be bai. Berrogeita hamar urte zituan ordurako eta ez eban sekula be ondo menderatu bere ibilgailu hori. Behin bera eta motorra ia zapaldurik geratu ziran kargatutako kamioi baten azpian. Hauts-egunean Ajuriara joian elizkizuna egitera, baina Autzaganeko aurbeheran bazterra jo eta orkatila hausi eban. Dana dala, barriro jarri motorrean eta Ajuriako elizan mezea emon, sermoia egin, hautsa ezarri eta guztia egin ahal izan eban. Orkatila hausita eta mailatunez beterik heldu zan etxera. Arratsalde batez etxerantz etorrela, Eubako zuzengunean, loak hartu eban unetxo batez eta errepide hegaleko bedarlekuan itxartu zan. Beste behin Markinatik Lekeitiora joan behar eban. Plazakolara jastean ez eban ondo hartu Milloiko bihurgunea eta Artibaiko presara jausi zan motor eta guzti... Holakoetan onik urten edo zauri larririk izaten ez ebanean, bere buruaz barre gozatsu egiten eban. Dana dala, lambretta harek berbetan baleki...!!

Karmeldar Jainkozalea

Espiritualidade sakoneko karmeldarra genduan. Jesus Eukaristiakoa zan haren debozinoaren ardatz. Otoitzari emona; Ama Birjina, San Jose eta Karmeldar santuak txoko berezia euken haren bihotzeko maiteen artean. Ama Birjinaren maitale aparta zan. Harek Karmengo Amari eutsan maitasuna ezkutuuan gorde ezinekoa zan. Eguneroko bizitzako edozein zertzeladatan egiten eutsan gainez. Ha hil ostean haren gelan aurkituriko liburuetarik erdiak baino gehiago Ama Birjinari buruzkoak dira. Errosario bi-edo gitxienez errezatzen zituan egunero eta errosarioak egin, barriz, milaka bere bizitzan ze-

har. Ha ezagutu dogun guztioi errosarioak egiten edo estanpak banatzen etorriko jaku, ziur asko, gogoramenera. Karmengo Amaren estanpak, eskapularioak, dominak ugari izaten zituan eskuartean; gehienetan, aurrez aurre aurkitzen zituenei banatzeko. Erein, erein egin behar zan.

Karmel aldizkariaren inguruan dihardugunok poz handia emon geuntzan azken urteotan. Karmengo Amaren estanpa polit bat eukan horri bitan argitaraturik. Estanpa horretan Aita Santu batzuk errosarioaren eta Karmengo eskapularioaren debozinoei buruz esandakoak, errosarioaren misterioak eta litaniak etozan. Baina erderaz egoan... "Euskeraz holakoxe bat bagendu..." esan eutsan Andoni Oleari. Holantxe atara ziran hainbeste estanpa; erdiak edo Larreako Ama Birjinaren irudia ekarrela eta gainerakoak Markinakoarena.

Teresatxo Lisieuxkoaren heriotzako mendeurrenean joan jakun. Lehen be aitatu dogu karmeldar santa gaztea, 1923ko apirilean Elizak "dohatsu" izendatu ebala eta gure Domingo Agirre Ozerin-ek, nobizio sartu zanean, Luzio Teresatxo Dohatsuarena hautatu ebala bere izentzat. Izan be, maite-maite eban eta poz-pozik egoan santa gazte hori hartu ebalako bere zaindaritzat. Hileta elizkizunerako egindako bertso baten santa horri gure laztana eroateko eskatzen neutsan: "Teresa Li-



A. Luki, Arostegietan bere senideekin (1988).

sieux-ko / zeunkan bihotzean. / Gure partez musu bat / harekin batzean”.

Azken-azkenera arte fin-fin jardun izan eban autorlekuan, Jainko Aitaren bihotz errukitsua guztiei agertuz. Baina Zornotzako familietan gehien eskertu eta goratzen dabena gaixoekin egin eban lana izan da. Harei laguntzearren, hau da, bera baino hobeto egozanei laguntzearren, zelan joan ohi zan azken-azkenera arte ibili ezinik eta erdi tatarrez bere gaixo maiteen etxeetara. Hau, santuei buruz esan ohi dan birtute heroikoen ezaugarri argi-argia da

Ipuin eta bertsoen idazle

Bertsoak idaztea beti izan eban gogoko, baina gaztetan batez be ipuin laburtxoak idazten zituan *Karmel* aldizkarian. Umorez beteriko kontakizunak. Bizkaiko herrietako gatza izango da haren ezaugarria. Berak herrietan zehar ikusi eta entzundakoei zukua ataraten ekian, erdi-taberna erdi-sakristia usaineko kontutxoei gupila emonez. Bizkaiera huts-hutsa darabil beti; euskalki honen edota eskualde batzuetako berbeta-moduen berezitasunak lartxo nabarmendurik, aukerara... Bestalde, euskera errez-erreza dario haren lumeari. Edonok ulertzekoa. Herri-esapideak, esaera zaharrak, bertsoak, pasadizoak txitean-pitean sartzen ditu eta gehienetan hari-harira.

Gaiak, esan dogunez, herrietako pasadizo eta jazorikoetatik atara eta josiak izan ohi dira. Beti be, herri-giro edo iturritik sortuak; gatz eta piper ugariz egosiak. Noizbehinka jazoeira sozio-erlijiosoak hartzen ditu eta, orduan, Jakina! haren idazkera serioago bihurtzen da, barruan gordeta eukan erre-gistroa ataratean lez. Baina gehienetan, senar-emazteen arteko gauzatxoak, sakristauen baten xelebrekeriak, urliaren eta sandiaren arteko norgehiagokak... ditu bere kontakizunen gai. Izenburuak ikusiz beste barik, errez konturatzen gara horretaz: “Peru ta Matxalen”, “Patxi erronkari”, “Apurbategaitik”,

“Ardaia andrea baño indartsuago”, “Txilibistru sakristaua” etab.

Hona hemen haren estiloa dastatzeko, “Patxi erronkari” izenburua dauan ipuinetik jasoriko ataltxo batzuk:

“Landoste-n, ospetsua zan Patxi. Arrotxoa, eta arrokeriak kilikili eginda, besteak baiño zertxobait goratxoago agertu gura bere burua. [...]

Ba-zan an inguruan Peru Mañortu eritxon beste gizon bat. Patxi Landoste ta Peru Mañortu besaka dabizan idiak lez ebi-zan. Batak baietz esan orduko, besteak ezetz; batak hau, besteak a.

Zer bururatuko yakon Patxi-ri Ameriketa-ra joateko? Dirutxoa eginda etorriko zala, berari begira lagun guztiak ipiñiko ebazala ta jauregitxoen bat eginda aberats biziko zalako edo, joan zan bai, zorionean, Ameriketa-ra. Baiña an be txakurrak ortozik eta praka zar eta zulo barri asko. Sentimentu guztiz kantatzen ebazan alako bertso oneik


*Urruti nere menditik
Joan nintzan dirulu nairik.
Urrutietan laster biotza
Naigabez erdibiturik,
Gelditu nintzan tristerik,
Bake santua galdurik.*

Ameriketa-tik etorri zanean Patxi, nok ixildu bera? Eztakit nik zenbat ardi eukazala, badakit nik nondik nora ibilli zala; alako edo olako automobil eta trenak, soloak landuteko tramankuluak, txarria bizirik sartu ta lukainka eginda botaten eben makiñak. Entzule guztiak adurra dariola eukazan.

Gitxien uste danean, baiña, gaztaiña eratzailleari kakoa apurtuten yako ta burdiagaz dabillanak okerreko zulotik larakoa sartzen dau. Begira zelan Patxi-ri ixil ordua eldu yakon.

Alako baten, ukondoa sarritxoegi altzau ebalako edo, polito-polito etorren Patxi etxera. [...] Larritasun-larritasunez estualdi-txoa etorri yakon eta sasiai ipuñak esan bearra be bai... Gero ibillian oinkada bakotxeko *tirrin, tirriin* entzuten eban. Geratu ta ezer ez. Joan doa barrero be ta bardin *tirrin, tirriin*... Atzera begiratu ta inor ez. Ibilli dabil zoliago, ta dabillan neurritz zorioneko *tirrin, tirriinn* belarri eta kuntzurrunetaraiño sartzen yako zarata ori. Etxera elduaz batera, ai!!! ikaragarri bat egiñaz luze-luze jausi zan atadian. Barrukoak urten eben. Patxi

era atan ikusirik ura bear zala, alkola bear zala ekioen artean, Peruk, Patxi-ren zoritxarez antxe egoan au be ta, eskuz oratu ta oera eroan gura eban. Oratuten deutso beso ta sorbalda aldetik eta oso-osoan ezin jaso ta narraz daroa ta *tirrin, tirriinn* barrero be entzuten dau Patxi-k eta orroaka diño: *sorgiñen batzuk edo inperniko deabruen* bat datorkit orain be... Eztozue entzuten *tirrin, tirriinn*? -Ze *tirrin* eta *tirrin* oste? diñotso Peruk-. A bai (diño guztiak) gerrian daroazun ugela solte dakazu ta bere EBILLEAREN zaratea baiño ezpada..."



A. Luki eta Lopez de Arriortua "Superiopez" (1994-VII-20).

Aita Lukiren oroimenezko lantxo honen ondoren, haren hita-elizkizunerako egin eta kantatu nituen bertsoekin amaituko dot:

Herriz herri ebilen
apostolu fina,
edonon nabari zan
beraren ekina;
hainbat karmeldarrentzat
irudi jakina:
gorputzez baldartxoa,
urrezko arima.

Jainkoak bialdua
txikitxoengana,
guri entzunaraziz
haren deia zana;
errosarioa ta
estapatxo bana,
holan eroan ginduzun
Kamengo Amagana.

Bizitzako goizean
eta arratsean
dehozino berezi
baten lorratzean.
Teresa Lisieux-ko
zeunkan bihotzean.
Gure partez musu bat
harekin batzean.

Hodei ilunak dira
jari hor bitarte,
eta joana zara
gugandik aparte;

zeruko Karmel dozu
orain senitarte.
Agur, goiko etxean
danok batu arte.

Luis Baraiazarra

Gehigarria

Aita Lukiren euskal idazlanen bibliografia

Domingo Aguirre Ocerin (Aita Luzio). Ez izenak: Arostegie-
ta, Atxiti, Landaxu, Mañortu, Luzio...

prosazkoak:

Piazza kardinale Karmeldarra (1884-1957), Karmel 1957-
2, 17-18.

Ardaoa andrea baño indartsuago (jazorikoa), Karmel 1957-
2, 17-19.

Andreak geiago, Karmel 1959-3, 15-17.

Aita Maximo Beobide, karmeldarra, Karmel 1957-3, 33.

Apurbategaitik..., Karmel 1957-4, 12-13.

Lourdes eta amargarren Pio Santua, Karmel 1958-1, 6-7.

Mixioi-gaia, Karmel 1958-1, 23.

Txanton: len eta orain..., Karmel 1958-2, 11-12.

Lourdes'ko agerraldiak, Karmel 1958-4, 18-19.

Seme zurra.. aita zurrago, Karmel 1958-4, 18-19.

Bruselas'ko Erakusketa, Mkarmel 1958-4, 22.

*Jose Santuaren Bonabentura gotzain agurgarria (Juan Bi-
xente Arana Idigoras, 1880-1959)*, Karmel 1959-4, 23.

Txilibistru sakristaua, Karmel 1958-5, 18-19.

Illak biztu..., Karmel 1958-5, 25-26.

Errosarioa ta eskapularioa, Karmel 1958-6, 7.

Maria, Karmel 1958-6, 9.

Urrupin eta gabonak, Karmel 1958-6, 15-16.

Gizonak andreari geiago, Karmel 1959-1, 10-11.
Peru ta Matxalen, Karmel 1959-1, 14-15.
Karmen'go Ama, Karmel 1959-2.
Padua'ko Antonio Santua ta..., Karmel 1959-3, 16.
Karmen'go edertasuna, Karmel 1959-4, 3.
Beti bakarrik..., Karmel 1959-5, 15-16.
Patxi erronkari, Karmel 1959-6, 11.
Komunistak, Karmel 1960, 2.
Laterri batuak ta kistarrak, Karmel 1960, 5-6.
Baridiñik ez, Karmel 1960, 16-17.
Beste Munduetan hōr ete?, Karmel 1960, 53-54.
Manu eiztaria, Karmel 1960, 110.
Don Niko'ren gizona..., Karmel 1960, 175,177.
Ba al dakizu?, Karmel 1960, 101-102.

bertsoak:

Erle-zolia (Lekaide barrien oroimenez), Karmengo 3 (1933,32.zk.) 247.
Kantari nator, Karmel 1957-3, 14.
"Xabiertxo", Karmel 10 (1960,5.zk.) 160d.
Kantari nator, Karmel 10 (1960,4.zk.) 128c.
Maipa, Karmel 10 (1960,6.zk.) 169-170.
Ezkontzako urrezko ezteguetan, PV 11 (1976,122-123.zk.) 8.
[*S. Onaindiari*], Zer (1984, 81.zk.) 12.
Akesolo'tar Lino Aitari, Zer (1989,132.zk.) 11.